

## Hiru emakume ikertzaileen lanari aitortpena egin die Ikerbasquek



Ikerbasquek emakume ikertzaileen lana aitortzeko eman dituen aintzatespenen lehen edizioan hiru emakumeren lana saritu dute. Maribel Arriortua Marcaida, Aitziber Lopez Cortajarena eta Maia Garcia Vergniory ikertzaileek jaso dute aitortza hori.

Maribel Arriortua Marcaida EHUko Kristalografia eta Mineralogiako katedraduna da, EHUn katedra lortu zuen lehen emakumeetako bat. Aitzindaria izan da ingurumenaren nahiz energiaren arloetan aplikatu daitezkeen sistema multifuntzionalen ikerketan. 2010ean Euskadi Ikerketa saria jaso zuen, eta 2012an, Zientzien, Arteen eta Letren Euskal Akademiako kide oso izendatu zuten. Orain ibilbide osoaren aitortpena jaso du.

Aitziber Lopez Cortajarenari, berriz, proteinen ingeniartzaren arloan lortu duen lidergoa aitortu diote. Gaur egun, CICbiomaGUNE Nanoteknologia Bio-molekularreko taldea zuzentzen du, eta ERC-Consolidator Grant laguntza garrantzitsua jaso du.

Azkenik, Maia Garcia Vergnioryri, ikertzaile gaztea izanik, material topologikoen esparruan egin duen ekarpena aitortu diote. Gaur egun, DIPcN ari da material topologikoak ikertzen. ●

## Denisovatik kanpoko lehen denisovartzat jotute Tibeteko lautadan aurkitutako fosil bat

Tibeteko lautadan 3.280 metroko garaieran topatutako masailezur bat Denisova haitzulotik kanpo topatutako lehen denisovarra dela ondorioztatu dute ikertzaileek.

Denisovarrei buruzko orain arteko informazio guztia Denisova haitzuloan (Altai mendiak, Errusia) topatutako fosil-zati batzuetan oinarritzen zen. Hango aztarnek erakutsi dute neandertalekin hibridatu zirela, baita sapiensekin ere, denisovarretatik datozen ezaugarri genetikoak topatu baitituzte Asia, Australia eta Melanesiako populazio batzuetan.

Ezaugarri horien artean dago EPAS1 aleloa, zeinak oxigeno gutxiko lekutan bizitzeko abantaila ematen dien Tibet inguruko biztanleei. Alabaina, Altai mendiak 700 metrora daude, eta, beraz, pentsatzekoa zen garaiera handiagoan ere azaldu behar zirela haien arrastoak.



Tibeteko lautadan aurkitutako masailezurra denisovarra dela baieztatu dute. ARG.: Dongju Zhang, Lanzhou Unibertsitatea.

Tibeteko lautadan, Baishiya kobazuloan (Xiahe) aurkitutako masailezur horrek, beraz, informazio oso baliotsua eman du. 160.000 urte inguru dituela kalkulatu dute; hau da, Denisovako fosil zaharrenak adina. Azterketa morfologikoei argi utzi dute ez dela ez *Homo erectus*, ez neandertala; aldiz, parekotasun handiak ditu Denisovako fosilekin. Eta proteomaren analisiak ere denisovarra dela baieztatu du. ●